



2012/05/7ko prentsa-oharra

ESKAINZA IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTADISTIKA, 2012ko 1. hiruhilekoa

EAEko etxebizitza erabiliaren metro koadroaren prezioa % 1,1 jaitsi da, eta % 1,8 etxebizitza libre berriarena.

Higiezin agentziek 9,7 hilabete behar dute batez beste etxebizitza bat saltzeko.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2012ko lehenengo hiruhilekoko eskaintza immobiliarioaren estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitza baten metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 3.837 eurokoa da; ia ez da aldatu aurreko hiruhilekoarekiko, $-\% 0,1$; eta iazko hiruhileko berarekiko $-\% 1,1$. Antzeko zerbait gertatzen da etxebizitza libre berriaren salneurrian, 3.765 euro metro koadroa, zerbait jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, $-\% 0,1$; eta $\% 1,8$ jaitsi da iazko hiruhileko berarekin alderatuta.

Araban, agentziek saltzeko eskaintako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa $\% 1,8$ jaitsi da azken hiruhilekoan, eta 2011ko lehenengo hiruhilekoarekiko alderatuz gero, $\% 5$. Halaber, Gipuzkoan $\% 1,9$ jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin, eta $\% 7$ 2011ko lehenengo hiruhilekoarekiko. Bizkaian, aldiz, $\% 1,4$ igo da, 2011ko aurreko hiruhilekoarekiko; hortaz, azken 12 hilabeteotan, guztira, $\% 2,2$ igo da.

Bilbon erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa $\% 2,1$ igo da. Vitoria-Gasteizen eta Donostian, aitzitik, prezioa $\% 1,8$ eta $\% 0,6$ jaitsi da, hurrenez hurren. Azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan izanik, Bilbon $\% 2,3$ igo egin dira eskaintza-prezioak, Donostian ia ez da aldatu, $\% 0,1$ gehiago, eta Vitoria-Gasteizen hazkundera negatiboa izan da, $-\% 4,9$.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezin agentziek adierazten dute saltzaileek $\% 13,3$ inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du $\% 0,4$ gehitzea izan dela azken hiru hilabeteetan erregistratutakoarekiko, eta aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, $\% 0,3$ koa.



Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa 3.765 euroren bueltan dabil, % 0,1 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko; eta urtebeteko epean % 1,8ko jaitsiera metatua izan du.


Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa jaitsi egin da Gipuzkoan; bai aurreko hiruhilekoarekiko, % 1,3, bai iazko lehenengo hiruhilekoarekiko, % 4,0. Araban metro koadroaren prezioak aldaezin jarraitzen du azken hiru hilabeteetan, baina % 1,9ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Bizkaian, berriz, lehenengo hiruhilekiko gorakada % 0,5ekoa da, nahiz eta 2011ko lehenengo hiruhilekoarekiko % 0,6ko jaitsiera izan den.

Etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa % 0,3 igo da Bilbon azken hiruhilekoan.

Aldiz, Donostian eta Vitoria-Gasteizen % 0,3 eta % 0,2 jaitsi da, hurrenez hurren. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroaren eskaintza-prezioak % 9,7 egin du behera Bilbon, eta Vitoria-Gasteizen, % 3,1. Donostian, aldiz, gora egin du, % 2,5.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 7.400 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 2,3.

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2012. Euskadiko AE.
Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eskaintza inmobiliarioari buruzko estatistika

EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 307.500 eurokoa izan da. 2012ko lehenengo



hiruhilekoan, % 0,3 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 2,3 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 339.200 eurokoa da; etxebizitza libre berriak baino 31.700 euro gehiago balio du, hots, azken hiruhilekoan baino % 0,3 gutxiago. Azken 12 hilabeteetan, ostera, % 0,9ko igoera metatua izan du, hau da, 3.200 euroko igoera.

Arabako etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak % 0,9 jaitsi dira azken hiruhilekoan, eta % 4,4, azkeneko urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioa, berriz, batez beste % 2,6 jaitsi da, azken hiru hilabeteetan; eta % 3,7, azken urtean. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 277.800 eurokoa da, eta erabiliarena, 262.100 eurokoa.

Bizkaian laugarren hiruhilekoan 306.700 euroan eskaini da etxebizitza librea. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioa % 0,3 igo da, baina 2011ko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 1 jaitsi da. Erabilitakoen prezioa igo egin da, % 0,5, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz; eta aurreko urtearekiko % 3,2ko igoera izan du. Lurralde horretako etxebizitza erabiliaren egungo batez besteko prezioa 346.200 euroren bueltan dabil.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei; etxebizitza libre berriak 323.200 euro balio du, eta bigarren eskukoak, 376.800 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 0,8 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta bigarrenarena, % 0,7. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 3,0 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena, % 4,8.

Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 46.200 euro jaitsi zen Bilbon; 22.600 euro, Gasteizen; eta 12.500 euro Donostian.

Azken hamabi hilabeteetan higiezin agentziek eta sustatzaileek % 11,0 jaitsi dute Bilboko etxebizitza libre berriaren prezioa; Gasteizen, % 7,3 jaitsi dute; eta Donostian, % 3,0.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 1,2 jaitsi da Bilbon eta Vitoria-Gasteizen, eta % 1,3 Donostian. Batez besteko prezioa 408.800 eurokoa da Donostian, 375.900 eurokoa Bilbon, eta, baxuena, 286.800 eurokoa, Vitoria-Gasteizen.

Bestetik, erabilitako etxebizitzaren prezioa ere jaitsi egin da azken hiruhilekoan: 265.300 euro, eta % 2,6 gutxiago Vitoria-Gasteizen; 395.200 euro, eta % 0,7 gutxiago Bilbon. 2011ko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuta, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 3,7 jaitsi da, eta Bilbon % 1,5. Donostian, ordea, prezioek % 1,3 egin dute gora azken hiruhilekoan, eta azken urtean, % 6,4; eta hiruhileko honetan 536.200 eurora iritsi da.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Alokatzeko etxebizitza libreen batez besteko errenta 895 euroan dago, eta babestutakoena – BOEak eta etxebizitza sozialak –, 308 euroan.

Etxebizitza librearen kasuan ia ez dago aldaketarik aurreko hiruhilekoarekiko, % 0,1 gutxiago; eta iazko lehenengoko hiruhilekoarekin alderatuta % 2,4ko jaitziera. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 10,1 igo da azken hiruhilekoan, eta % 42,2, azken urtean.

Sektore babestua – BOEak eta etxebizitza sozialak – 112.600 euroko batez besteko prezioan ari da saltzen etxebizitzak –1.535 euro metro koadro erabilgarri bakoitzeko –. Etxebizitza horien metro koadroaren batez besteko prezioak % 0,2 egin du gora azken hiruhilekoan, eta 2011ko hiruhileko berarekin alderatuta, % 2,9.

Higiezinen agentziek 9,7 hilabete behar dute batez beste etxebizitza bat saltzeko; duela urtebete baino bi hilabete gehiago.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2011ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA							
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/Etxeb. soziala	1,535		3.2	0.2	42.1	2.8
	Berri librea	3,764		-5.0	-0.1	-67.6	-1.8
	Erabilia	3,837		-4.4	-0.1	-42.9	-1.1
Araba	Berri librea	3,437		-1.5	0.0	-66.5	-1.9
	Erabilia	3,174		-58.7	-1.8	-165.5	-5.0
Bizkaia	Berri librea	3,821		18.7	0.5	-22.3	-0.6
	Erabilia	3,820		53.9	1.4	80.8	2.2
Gipuzkoa	Berri librea	3,827		-49.3	-1.3	-157.8	-4.0
	Erabilia	4,313		-82.5	-1.9	-322.8	-7.0
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) EREDUZKO ETXEBIZITZA	3,425		-22.7	-0.7	-50.4	-1.4
Berria librea	Gasteiz	3,644		-6.6	-0.2	-115.5	-3.1
	Bilbo	4,667		12.8	0.3	-502.8	-9.7
	Donostia	4,821		-16.8	-0.3	115.8	2.5
Erabilia	Gasteiz	3,213		-58.5	-1.8	-166.9	-4.9
	Bilbo	4,336		87.4	2.1	98.4	2.3
	Donostia	5,671		-34.3	-0.6	8.3	0.1
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/ Etxeb. soziala	112.6		0.6	0.5	2.7	2.5
	Berria librea	307.5		-0.9	-0.3	-7.4	-2.3
	Erabilia	339.2		-1.0	-0.3	3.2	0.9
Araba	Berria librea	277.8		-2.5	-0.9	-12.9	-4.4
	Erabilia	262.1		-7.0	-2.6	-10.1	-3.7
Bizkaia	Berria librea	306.7		0.8	0.3	-3.2	-1.0
	Erabilia	346.2		1.9	0.5	10.9	3.2
Gipuzkoa	Berria librea	323.2		-2.5	-0.8	-9.9	-3.0
	Erabilia	376.8		-2.6	-0.7	-18.9	-4.8
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Gutzizkoa	43,348	100.0	-1,295	-2.9	10,831	33.3
	BOE berria/Etxeb. soziala	6,212	17.8	-634	-9.3	1,734	38.7
	Berria librea	5,624	19.4	75	1.4	935	19.9
	Erabilia	29,209	51.2	-672	-2.2	8,378	40.2
	Soziala/Librearen Alokairua	2,303	11.5	-64	-2.7	-216	-8.6
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ERRENTA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	307.5		28.3	10.1	91.3	42.2
	Librea	895.1		-1.2	-0.1	-22.4	-2.4
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN BATEZ BESTEKO HILABETEA		9.7		1.0	11.1	2.2	29.5
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentajezko puntutan	Ald %	Aldea portzentajezko o puntutan	Ald %
EAE		13.3		0.4	3.2	0.3	2.0
Araba		4.4		-0.4	-7.4	-0.7	-14.3
Bizkaia		15.3		2.8	22.9	0.8	5.5
Gipuzkoa		13.2		-1.1	-7.8	0.0	0.1

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Ohar metodologikoa

2011ko laugarren hiruhilekoko datuak 176 higiezin-agentzik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 156 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarrizketetatik atera dira. 2011n igo egin da informazioa ematen duten agentzien kopurua. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskainitako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorrek ateratzen dira, ausazko aldaketak gutxiagotzeko



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.:+34-945-01 97 12 Fax.:+34-945-01 64 07

Prensa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.